AULESTIKO KANPOKO ARGITERI PUBLIKOAREN ALDAKETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO 1. FASEA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA, HAINBAT ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEREN ARABERA.

I.- ALDERDI OROKORRAK

1. KLAUSULA. Araubidea

Gauzatu beharreko kontratua hornidura-kontratu bezala kalifikatzen da, 2017ko SPKL – Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa jarraituz.

Kontratazio honek administrazio izaera du eta arautuko da, baldintza plegu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, ondoko arauetan xedatutakoa jarraituz:

- Europako Legebiltzar eta Kontseiluaren otsailaren 26ko Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/UE Direktiba, 2004/18/CE Direktiba indargabetzen duena.

- 2017ko SPKL - Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

– HAKLEO – Herri-administrazioen kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Dekretua.

Ordezko bezala, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, haien falta, zuzenbide pribatukoak.

Kontratua gauzatzeari dagokionez, oso-osorik errespetatu beharko dira laneko segurtasun-eta osasun- arloko xedapenak, ingurumen arlokoak. Behe Tentsioko Erregelamendua betetzea aurreikusiko da.

Kontratu izaera izango dute honako dokumentu hauek:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiria.
b) Preskripzio Teknikoen Agiria (Baloratutako Memorian, plegu tekniko gisa jasotzen dena).
c) Kontratua formalizatzeko agiria.
d) Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

2. KLAUSULA. Kontratuaren xedea eta beharra

2.1 Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da ***AULESTIKO KANPOKO ARGITERI PUBLIKOAREN ALDAKETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO 1. FASEA*** kontratuaren baldintzak ezartzea, Aulestiko argiteria publikoan efizientzia eta energia-aurrezpena hobetzeko helburuarekin, memoria baloratuan jasotako jarduketen deskribapenarekin bat etorriz.

2.2 Sailkapena

Europako Batzordearen CPV (Kontratuen Hiztegi Bateratua) nomenklaturari dagokion kontratuaren xedearen kodifikazioa honako hau da:

- CPV kodea: 31527200-8 argiak kanpoko argiteriarako.
- CPV kodea: 34928500-3 Kaleetako argiteria ekipoa.
- CPV kodea: 45316100-6 Kanpoko argiteria ekipamendua instalatzea.
- CPV kodea: 50232100-1 kaleetako argiteria publikoa mantentzeko zerbitzua.

2.3 Ase beharreko beharrak

- Kontsumo elektrikoaren murrizketa eta energiaren aurrezpena
- Ingurugiroan daukan inpaktuaren jeitsiera
- CO2 isurketen murrizketa
- Kostuen murrizketa faktura elektrikoan eta mantenuan
- Kutsadura luminikoaren jeitsiera eta argiteri publikoaren kalitatea hobetzea

2.4 Lotetan banatzea

Kontratuaren xedea loteetan ez zatitzeko arrazoiak honako hauek dira:

- Lotetan banatuz gero, eskalako ekonomiak galduko lirateke. Instalazioa egiteko

unitateak murrizteak lizitatzaile potentzialek eskaintzak hobetzeko aukerak nabarmen murriztea ekar lezake.

- Kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean gauzatzeak argi-marka eta modelo desberdinak instalatzea ekar dezake, gerora mantentze-lanak zailduko lituzketenak.

3. KLAUSULA. Kontratatze organoa.

2017ko SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratu honetarako kontratatze organoa Udalbatzarra da.

4. KLAUSULA. Esleipenerako prozedura

2017ko SPKLren 159.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez esleituko da, eta zenbait esleipen-irizpide jarraituz egingo da, plegu honen 16. klausulan xedatutakoa jarraituz.

5. KLAUSULA. Emandako balioa eta kontratua lizitatzeko oinarrizko aurrekontua

2017ko SPKLren 101.8 artikuluaren arabera, prezioa finkatzeko sistema egin beharreko hornidurei dagozkien prezio unitarioena da.

2017ko SPKLren 101.1 artikuluak aurreikusitako ondorioetarako, kontratuari emandako balioa **68.420,48** euro da (BEZ gabe).

Proiektuan jasotako lizitazio aurrekontua **68.420,48** euro da (BEZ gabe), eta **82.788,78** euro (BEZ barru). 2017ko SPKL 100 artikuluan xedatutakoaren arabera egin da, bere kalkuluan egonez dagozkion zergak.

6. KLAUSULA. Kreditua izatea

Kontratuaren prezioari aurre egiteko aurreikusita dago finantziazioa **2023ko aurrekontuan, partida honetan: 60113.165 (eta bere lotura taldean) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusitik emondako dirulaguntzaren arabera, klima-aldaketaren eta energia trantsizioaren arloko jarduketak egin ditzaten eta aurrezte nahiz eraginkortasun energetikoari buruzko planak eta neurriak sustatu, eta, bestetik, energia berriztagarriak sustatu eta ezar ditzaten Programaren barruan.**

Kontratazioaren ondorio den gastuari aurre egiteko kreditua gordetzea, eta baita bere aldez aurreko fiskalizazio eta onarpena, kontratuaren esleipendun hautatzen den eskaintzaren kopurua ezagutzen denean egingo dira.

7. KLAUSULA. Gauzatze epea

Kontratu honen xede den hornidura entregatzeko eta instalatzeko epea, guztira, hamalau (14) astekoa izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik hasita.
Kontratista berandu dabilela ulertuko da epe hori igaro ondoren, eta ez da beharrezkoa izango horretarako Udalak berari ohartaraztea.
Kontratistak kontratuko epean obrak egiteko ezarritakoa baino azkarrago egin ditzake lanak, beti ere, zuzendaritza fakultatiboak ez badu esaten ez dela horrela egitea komeni.

8. KLAUSULA. Burutze baldintza bereziak

Kontratu hau burutzeko baldintza bereziak, 2017ko SPKLren 202 artikuluaren arabera, ondoko hauek dira:

- Ingurumen arloko burutze baldintza bereziak:

1) Enpresa esleipendunak, instalazio lanak egin aurretik, kontratu honen xede den argiteri publiko guztia bilduko duen azterketa luminikoa egiteko konpromisoa hartzen du, teknikari gaituak sinatua.
2) Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du argi-kutsadura ahal den neurrian saihesteko argiztapen-unitate edo sistemak instalatzeko.
3) Kontratuaren xede den instalazioa egin ondoren, enpresa esleipendunak argien uniformetasuna bermatu dela egiaztatuko du.
4) Esleipendunak modu frogagarrian egiaztatu beharko du kendutako elementuak baimendutako birziklatze-instalazio batera bidali direla.

- Gizarte izaerako burutze baldintza bereziak:

1) Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzeko, eta kontratu hau gauzatzean esku hartzen duten langileei aplika dakizkiekeen sektoreko eta lurraldeko hitzarmen kolektiboak betetzeko (bereak edo azpikontratatutako enpresenak, hala badagokio).

2) Enpresa esleipendunak pertsona bat edo gehiago kontratatu behar baditu obra hori egiteko, konpromisoa hartzen du gutxienez langabetu bat kontratatzeko, iraupen luzekoa bereziki, obra egiteko, eta haren gutxieneko iraupena obra egiteko epea izango da.

3) Enpresa esleipenduna konpromisoa hartzen du gizon eta emakumeen arteko aukeren berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzera.

- Hizkuntza baldintza bereziak:

1) Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jardungo du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak gutxienez euskaraz izango dira (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren, III. Kapitulua).

2) Errotuluak, kartelak, seinaleak eta antzeko elementuak euskaraz egongo dira, Udalak barne erabilera planean zehaztutakoari jarraiki.

Baldintza berezi hauek kontratuko funtsezko betebehar izaera dute, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202 artikuluan aurreikusitakoan oinarrituz, beraiek ez betetzea kontratuaren suntsiarazpen arrazoi izan daiteke, 211.f) artikuluan adierazitako eraginekin.

Kontratua plegu honetan finkatutako toki eta epean egin beharko da, baldintza tekniko eta administrazio klausulak jarraituz. Hala ere, Udalak, kontratua gauzatzen den bitartean, aldaketa justifikatuak egin ahal izango ditu zuzendaritza fakultatiboaren arrazoietan oinarrituz.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango horniduran galera, matxura edo kalteak izaten baditu Udalari ondasunak eman aurretik, beti ere, honek ez baditu atzerapenarekin hartzen.

Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakieken egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KLAUSULA. Prezioen berrikuspenerako arauak

Sektore publikoko kontratuen prezioak berrikusteko baldintzak arautzen dituen 2017ko SPKLren 103 artikuluaren arabera, berrikuspen hori ez zaio aplikagarri kontratu honi.

10. KLAUSULA. Ordainketa-araubidea

Horniduraren prezioa hura entregatu eta jaso ondoren ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Bakarrik hartuko da kontutan elektronikoki aurkeztutako faktura Udalaren egoitza elektronikoan.

2017ko SPKLren Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarriko 2. atalaren arabera kontratistak aurkeztutako faktura bakoitzean honakoa jaso behar du: kontabilitate publikoan eskumena duen administrazio-organoa, kontratazioan eskumena duen organoa eta, ondoren xedatutakoaren arabera, hartzailea:

a) Kontratatze-organoa UDALBATZARRA dela.
b) Kontabilitate publiko arloan eskumena duen administrazio-organoa KONTU-HARTZAILEA dela.
c) Hartzailea AULESTIko UDALA dela.

11. Bermeak

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, behin betiko bermea eratu beharko du, esleipenaren zenbatekoaren % 5ekoa, BEZa kenduta.

Berme hori eratzeko epea 20. klausulan aipatzen den errekerimenduan adierazitakoa

izango da, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako modura eratu ahal izango da.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

12. Adjudikazio-prozedura

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, SPKLren 159. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura artean ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

13. Lizitazio elektronikoa

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

14. Kontratatzeko gaitasuna

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere, eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude, SPKLren 159.4 artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko, 15. klausulan ezartzen diren bitartekoak erabiliko dira.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari batek ordezkatuta har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko baten ordezkari gisa kideren bat badago, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezintasun-kausa horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko

behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

15. KLAUSULA. Kaudimena

Ekonomia eta finantza kaudimen edo kaudimen tekniko edo profesionalari dagokionez pleguek zehazten ez duten aldeetan, kaudimena egiaztatzeko 2017ko SPKLren 87.3 artikuluaren bigarren atalean jasotako irizpideak, betekizunak eta bitartekoak erabiliko dira. Irizpide, betekizun eta bitarteko horiek baldintza-agirietan horiei buruz adierazi ez denaren edo zehaztu ez denaren osagarri izango dira.

- Ekonomia eta finantza kaudimena, eta kaudimen profesional edo teknikoa; gutxieneko kaudimen-baldintzak eta nola egiaztatu:

• **EKONOMIA ETA FINANTZA KAUDIMENA**:

1. Enpresaren ekonomia eta finantza-kaudimena honako bide hauetakoren bat edo batzuk erabiliz egiaztatu beharko da:

a) 87, a) letra: Kontratuak aipatzen duen eremuan, urteko gutxieneko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokiona gutxienez: 65.000 euro. Egiaztatzeko era: onartutako eta dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez.

• **KAUDIMEN TEKNIKOA**:

1. Enpresaren kaudimen teknikoa honako bide hauetakoren bat edo batzuk erabiliz egiaztatu beharko da:

a) 2017ko SPKLaren, 89 art., a) letra: Azken 3 urteetan kontratuaren xede diren antzeko hornidura nagusien zerrenda. Eremuari buruzko aipamena CPV kode hauetakoren bati buruzkoa izango da:

- CPV kodea: 31527200-8 argiak kanpoko argiteriarako.
- CPV kodea: 34928500-3 Kaleetako argiteria ekipoa.
- CPV kodea: 45316100-6 Kanpoko argiteria ekipamendua instalatzea.
- CPV kodea: 50232100-1 kaleetako argiteria publikoa mantentzeko zerbitzua.

b) 2017ko SPKLaren, 89 art, b) letra: Kontratua gauzatzeko zer teknikari edo unitate dauden (enpresan integratuta egon edo ez), bereziki kalitate kontrolaz arduratzen direnak.
Lizitatzaileek haien eskaintzetan kontratua gauzatzeko zehaztutako baliabide material eta giza baliabideek funtsezko kontratu betebehar izaera izango dute. Beraz, 2017ko SPKLren 76 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 211 artikuluan adierazi bezala.

Beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresak oinarritu ahal izango da beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideetan, inolakoa izanda ere beraiekin dituen loturen izaera juridikoa, beti ere egiaztatzen badu kontratuaren gauzatzearen iraunaldi guztian zehar kaudimen eta baliabide horiek erabili ahal izango dituela, eta horretarako erabiltzen duen erakunde hori ez dagoela kontratatzeko debeku barne.

Era berean, 2017ko SPKLren 69 artikuluak aipatzen dituen aldi baterako elkarteetan batutako enpresek aldi baterako elkartetik kanpoko ahalmenetan oinarritu ahal izango dira.

16. Adjudikazio irizpideak

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK (C artxiboa)	**70 puntu**
1. Proposamen ekonomikoa: Baloratuko da puntuaketa altuena proposamen ekonomiko baxuenari emanez, formula hau jarraituz: Proposamen ekonomiko baxuena ---------- x 55 Baloratu beharreko proposamena Eskaintzak baztertu egingo dira, baldin eta egiaztatzen bada oso baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen estatuko edo nazioarteko ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKL, 149.	55 puntu

Eskaintzak neurriz gabekoak edo anormaltzat joko dira aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren baino %25 merkeagoak badira; eskaintza bera ere sartuko da kalkulu horretan, uste baita horrelako merkatzeak langileen eskubideen kalterako izan daitezkeela. Inola ere ezin izango da justifikatu prezioa jaistea pleguan jasotzen diren betebeharrak ez betetzen, edo, zeharka, betebehar horiek ez betetzea suposatzen duten jarduerekin.	
2.- Berme-epea luzatzea: Kontratu honetarako 28.4 klausulan ezarritako berme-epea (3 urte) luzatzen den urte oso bakoitzeko 2,14 puntu emango dira, gehienez ere 15 puntu. Elementu bakoitzaren berme-epea zehaztu beharko da eta bataz-bestekoarekin kalkulatuko da puntuazioa. Berme horrek zer estaltzen duen ere zehaztu beharko da (materiala, eskulana, desplazamendua, garraioa,..)	15 puntu
BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK: (B artxiboa) (Gehienez ere 20 orrialde guztira, fitxa teknikoak aparte)	**30 puntu**
1. Azterketa teknikoa. Lizitatzaileak memoria bat egin beharko du non obraren egikaritza aztertzen den eta bere proposamena azaltzen duen. Ekarriko du ere obra unitate horiek erraztu, hobetu eta errentagarri egiteko proposatzen diren konponbide teknikoak. Erakutsi beharko da ere proiektua bere osotasunean ulertu dela eta bere unitate ezberdinak zehatz aztertu direla. Memoriak aztertuko ditu Proiektuan aurreikusitako arazo ezberdinak eta obraren bideragarritasunean eta lan-programan baldintzatu edo eragina izan ditzaketen ikuspegi guztietan sakonduko du.	5 puntu
2. Proposatutako luminarien ezaugarriak. Luminarien eta osagaien egokitasuna, estetika eta ezaugarri teknikoak baloratuko dira, baita besteak beste, kalitatea, bizi iraupena, elikatze intentsitatea.. Luminaria eta osagaien fitxa teknikoak aurkeztea ezinbesteko baldintza izango da.	10 puntu

3.- Hobekuntzak. - Gune ilunak identifikatu eta farolak instalatzea: 5 puntu - Fakturen eta kontratuen azterketa eta doikuntzen ezarpena: 5 puntu - Gainontzeko hobekuntzak: 5 puntu	15 puntu

17. KLAUSULA. Kontratatze-mahaia

2017ko SPKLaren 326 artikuluan eta 817/2009 EDaren 21 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarrian, 7an, jasotzen dena kontuan harturik, kontratazio organoak izendatzea erabaki du espediente honetan parte hartuko duen kontratazio mahaia. Hurrengoak dira kideak:

Presidentea: Alkatea edo honek izendatutako zinegotzi bat.
Idazkaria: Udaleko funtzionarioa
Bokala: Idazkari Kontu-hartzailea

Presidentearen ordez alkate-ordea egon ahal izango da.

Kontratazio Mahaiak, organo laguntzaile tekniko espezializatu legez, hurrengo funtzio hauek izango ditu, Legean eta honen garapenean emandako erregelamenduan jasotzen direnen artean:

a) 140 eta 141 artikuluetan aipatzen diren aurretiazko betekizunak betetzen direla frogatzeko agiriak kalifikatzea, eta, horrela badagokio, hautagai edo lizitatzaileen baztertzea erabakitzea, hori betetzea frogatzen ez badute, eta betiere, aldez aurretik konpontzeko aukera emanda.

b) Lizitatzaileen proposamenen balorazioa.

c) Horrela gertatzekotan, eskaintza bat anormalki baxuegia dela kalifikatzeko proposamena egitea, aldez aurretik SPKLaren 149 artikuluan jasotzen den prozedura izapidetu eta gero.

d) Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailearen alde esleitzeko proposamena

kontratatzeko organoari egitea, SPKLaren 145 artikuluan jasotzen denarekin bat etorriz, eta plegu honetan jasotzen den legez.

18. KLAUSULA. Proposamenak aurkezteko era eta edukia.

18.1. Interesatuen proposamenak

Interesatuen proposamenak lizitazioa arautzen duten plegu eta dokumentaziora lotu beharko dira. Beraiek aurkeztea suposatuko du inolako salbuespen edo baldintza gabe onartzen dutela enpresek bere osotasunean haren klausula eta baldintzak. Baita ere kontratatze-mahaia eta organoa baimentzen dutela Sektore Publikoko lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Errolda Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kideen eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta proposamenak ireki arte izaera hori bermatzeko baliabideak jarriko dira.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat aurkeztu ahal izango du bakarrik.

Ezin izango du ere aurkeztu proposamenik aldi baterako elkarte bidez, banaka ere egin badu edo aldi baterako elkarte baten baino gehiagotan agertu.

Arau hauek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.
Proposamenean adierazi beharko da, aparteko kopuru bezala, kargatu behar den BEZ.

18.2. Publizitatea

Kontratuaren lizitatze iragarkiak bakarrik eskatuko du kontratatzaile profilean argitaratzea: http://www.aulesti.eus

Kontratatze organoaren kontratatzailearen profilean eskainiko da kontratuaren lizitazio-deialdiari buruzko informazioa, administrazio-baldintza zehatzen pleguak barne eta dokumentazio osagarria, egongo balitz.

Eskaintza aurkezteko beharrezkoa den dokumentazio guztia era elektronikoan egongo da eskuragarri iragarki hori kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik.

18.3. Proposamenak aurkezteko tokia eta epea

Proposamenak halabeharrez bakarrik baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira 2017ko SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzak jarraituz, EUSKADIKO SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATATZE PLATAFORMAn (aurrerantzean, kontratatze-plataforma) kontratatze publikoko prozedura elektronikoetan enpresentzat jarritako eskaintzak prestatu eta aurkezteko tresnaren bidez.

Proposamenak aurkezteko epea hamabost (15) egun naturalekoa izango da, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (2017ko SPKLren 159.3 art.).

18.4. Informazioa lizitatzaileei

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, kontratatze organoak emango diete eskaintzak jasotzeko ezarritako muga-eguna baino 6 egun lehenago beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak .

18.5. Konfidentzialtasuna

Kontratatze organoak ez du zabalduko lizitatzaileek beraien eskaintza aurkezteko eran konfidentzial bezala adierazitako informazioa.

Konfidentzial izaerak hartuko ditu, beste batzuen artean, sekretu tekniko edo merkataritzakoak, eskaintzen ikuspegi konfidentzialak edota lehiakortasunean iruzur egiteko erabili daitekeen edozein beste informazio, bai lizitazio prozedura honetan, bai beste batzuetan.

Kontratatze organoaren eta bere menpe dauden zerbitzuen konfidentzialtasun beharra ezin da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora, ezta ere, kasuan kasu, kontratatze organoak lizitatze prozeduran zehar zuzen edo zeharka eratzen dituen

txosten eta dokumentazio orora.

Bakarrik zabaldu ahal izango da hedatze mugatua duten dokumentuetara, eta inolaz ere publikoki eskuragarri diren dokumentuetara.

Konfidentzialtasun beharrak ezin izango du eragotzi ere gauzatutako kontratuen konfidentzial ez diren zatien hedatze publikoa, esate baterako, kitapena, obraren egikaritzarako azken epeak, zein enpresekin kontratatu edo azpi-kontratatu den, eta, edonola ere, eskaintzaren funtsezko atalak eta kontratuaren ondorengo aldaketak. Beti ere, izaera pertsonaleko datuen babeserako legedian xedatutakoa errespetatuko da.

18.6. Eskaintzak aurkezteko era

Lizitatzaileek hiru artxibo aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukia dutela.

A ARTXIBOA	KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA
B ARTXIBOA	BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK
C ARTXIBOA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALIO-JUDIZIOAREN MENDE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK

“A” ARTXIBOA

- **“A” artxiboaren azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”.** Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, kontratazioaren gaineko Europako dokumentu bakarraren eredura egokituko dena **(EKAB)**. (Kontratazio Plataformaren bidez eskura daiteke).
   Hala ere, Kontratazio-Mahaiak, prozeduraren amaiera ondo bermatze aldera, eskatu ahal izango du, esleipena egin aurreko edozein unetan, lizitatzaileek agiri honetan kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

2. Kasu bereziak**. U.T.Eren konpromisoa,** kasu bada.

Artxibo honetan B edo C artxiboeri buruzko dokumentazioa sartzea lizitazio honetatik baztertzeko arrazoia izango da.

Legean eta baldintza-agiri honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen den unea izango da.

1. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: Erantzukizunpeko adierazpena, kontratazioaren gaineko Europako dokumentu bakarraren eredura egokituko dena, 141 artikuluarekin bat etorriz. Digitalki sinatu behar da eta behar den moduan identifikatuta (eskuragarri egongo da kontratatze-plataformaren bitartez).

Erantzukizunpeko adierazpenean lizitatzaileak ondoko hau adieraziko du:

1.1. Sozietatea behar den bezala eratuta dagoela eta bere helburu sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu daitekeela, eta baita adierazpena sinatzen duenak proposamena eta adierazpena aurkezteko ahalordetza nahiko duela.

1.2. Dagokion sailkapena duela, edota exijitutako kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak dituela, pleguan ezarritako baldintzekin eta kontratatzeko Europako dokumentu bakarraren inprimakiarekin bat etorriz.

1.3. Ez dagoela kontratatzeko debeku barruan, ez bera bakarrik, ezta SPKLren 71.3 artikulua ezartzearen ondorioz sortutako egoeran.

1.4. Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoko helbide bat ematea, “gaitua” 2017ko SPKLren 15. Xedapen Gehigarriak ezarritakoa jarraituz.

1.5- Erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzaileak azpikontratatu nahi duen kontratu zatiari buruzkoa. SPKLren 215 artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe, enpresa lizitatzaileek adierazi egin behar dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzeko asmorik duten ala ez. Azpikontratatzeko asmoa izanez gero, kontratu osoaren zein portzentaje azpikontratatu behar duen adierazi behar du, noren esku utzi behar duen zati hori eta enpresaren profila. Azpikontratatutako enpresak kaudimen profesional edo

teknikoko baldintzak bete behar ditu. Era berean, azpikontratatutako enpresetako langileei dagokion hitzarmen kolektiboa zein den zehaztu behar dute. Ez dago aurrekontuaren %40tik gora azpikontratatzerik.

1.6- Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

1.7- Enpresa lizitatzaileko langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa (buletina eta argitalpen-data).

2. KASU BEREZIAK:
2.1- Atzerriko enpresak
2.2- ABEEak (Aldi Baterako Enpresa Elkarteak)
2.3- Lotutako enpresak
2.4- Foru judizialaren gaineko adierazpena

2.1- Atzerriko enpresak
Nazioarteko akordioetatik Espainiari dagozkion betebeharrak derrigor bete behar diren arren, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak ez diren pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu egin behar dute txosten baten bitartez atzerriko enpresa horren estatuak onartu egiten dituela Espainiako enpresak euren herrialdeko sektore publikoko kontratazioan parte hartzeko, 3 artikuluan jasotakoen haritik, Espainian egiten den antzera.
Txosten hori Espainiak atzerrian daukan Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egin behar du, eta bestela ekarri behar duen dokumentazioari erantsi behar zaio.

Era berean, Europar Batasunetik kanpoko enpresa esleipendunari eskatuko zaio Espainian bulegoa zabaltzea, hemen egin beharrekoak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatzea eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea. Beraz, eskaintza aurkezteak berekin dakar betekizun hori onartzea.

2.2- ABEEak (Aldi Baterako Enpresa Elkarteak)
Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan,

hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

2.3- Lotutako enpresak

Lizitatzaileek beti adierazi behar dute enpresa lotuta dagoen ala ez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako egoerekin bat etorriz eta 2017ko SPKLaren 149.3 artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratazio Legearen Erregelamendu Orokorraren 86. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, Ezaugarrien Koadroaren 10.1 atalean adierazpena aurkeztu beharra dagoela jasoko da.

2.4- Foru judizialaren gaineko adierazpena

Atzerriko enpresek Espainiako edozein ordenatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende ipiniko direla adierazten duen aitorpena egin beharko dute, kontratutik zuzenean eta zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, lizitatzaileari egoki lekiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko eginda.

Kontratazio-organoak zein Kontratazio Mahaiak aukera dute lizitatzaileei dokumentu batzuk edo guztiak eskatzeko, adierazpena indarrean ote dagoen edo benetakoa ote den zalantzarik izanez gero, edo prozedura behar den moduan garatzeko, beti ere, kontratua esleitu aurretik.

Lehen aipatutako gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean izan behar dira indarrean eta kontratua egiteko unean horiek betetzen jarraitu beharko da.

"B" ARTXIBOA

- **"B" artxiboaren azpititulua hau izango da: "BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK".** Hona hemen "B" **kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:**

1.- AZTERKETA TEKNIKOA.

Memoria bat aurkeztuko da, non obraren egikaritza aztertu eta lizitatzailearen proposamena azalduko den.

2.- PROPOSATUTAKO LUMINARIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

Eskainitako luminaria eta osagaien ezaugarri teknikoak zehazteko, horien ziurtagiriak edo fitxa teknikoak erantsiko dira.

3.- HOBEKUNTZAK.

Dokumentu batean zehaztuko dira kontratua gauzatzean sartzeko prest dagoen hobekuntzak.

"C" ARTXIBOA

- **"C" artxiboaren azpititulua hau izango da: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALIO-JUDIZIOAREN MENDE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK".** Hona hemen "C" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

1. **PROPOSAMEN EKONOMIKOA:**

-Proposamen ekonomikoa baldintza-agiri honen I eranskinean zehaztutako PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUaren arabera izango da.
-Banakako prezioen zerrenda.

2. BERME-EPEA LUZATZEA:

Hiru urteko berme-epea luzatzea behin-behineko harrera-akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita**.** Gehienez ere zazpi urte gehiago luza daiteke, eta, beraz, gehieneko epea hamar (3+7) urtekoa izango litzateke.

Gutun azal honetan, inola ere ez da sartu behar memoria teknikoa edo beste edozein datu, adjudikazio irizpideei dagozkienak, haren balorazioa dagoenean balio irizpide baten mende, "B" gutun azalean sartu behar dira eta.

Datu horietako edozein sartuz gero "C" gutun azalean, ez dira baloratuko agiriok;

hortaz, bakarrik emango zaizkio adjudikazio irizpideen puntuak, zenbatu daitezkeenak era automatikoan.

OHARRA: Ez ahaztu digitalki sinatu behar direla agiriak.

19. KLAUSULA. Dokumentazioaren kalifikazioa, proposamenen irekiera eta dokumentazio errekerimenduak

19.1 "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Kontratazio-mahaiak, kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratzen den lekuan, egunean eta orduan, A artxiboa irekiko du, eta bertan kontratu hau eskuratzeko baldintzak betetzeari buruz jasotako dokumentazioa egiaztatuko du.

Mahaiak konpon daitezkeen akatsak edo ez aurkezteak aurkituko balitu lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan, 2017ko SPKLaren 141.2 artikuluan, APKLEOaren 81.2 artikuluan eta 817/2009 EDaren 27. artikuluan aurreikusten den bezala jardungo da. Konpongarriak diren akatsak egotekotan, lizitatzaileari hiru egun balioduneko epea emango zaio hauek zuzentzeko. A artxiboan eskatutako dokumentazioa zuzentzen ez badu, prozesutik kanpo utziko da.

19.2 "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA IREKITZEA

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, zeina balio-iritzi baten araberako irizpideei buruzkoa baita, kontratatzaile-profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko den leku, egun eta ordu batean irekiko da. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak hiru egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko.

19.3 "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA IREKITZEA

B» gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «C» gutun-azala irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko den egunean eta orduan. Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak hiru egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko.

Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari.

Ekitaldi horietan, lizitaziora aurkeztutako enpresak presentzialki egon ahal izango dira.

Kontratazio Mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

1.- Prozesuan onartutako eta baztertutako lizitatzaileak ezagutaraztea. Baldintza-agiriko betekizunak eta eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzea.

2.- Modu automatikoan ebalua daitezkeen edo formulak erabiliz kuantifika daitezkeen irizpideak baloratzea.

3.- Eskaintza bakoitzetik lortutako guztizko puntuazioa ezartzea, eta beheranzko ordenan sailkatzea.

4.- Puntuazio onena duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egitea. Eskaintza bat zuzendu beharra badago, proposamena eten egingo da epea bete arte edo eskatutakoa aurkeztu arte.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzaileari, ez baititu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza 149. artikuluan aurreikusitako kasuengatik ohiz kanpokoa dela jotzen bada, Mahaiak artikulu horretan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, baina lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea hiru (3) egun baliodunekoa izango da, jakinarazpena bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Egindako guztia espedientean jasoko da, dagozkion akten bidez. Akta horiek nahitaez egin beharko dira.

5.- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresen Erregistro Ofizialean sartzea eta, kontratua esleitzeko

proposatutako lizitatzaileari dagokionez, nortasunari, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuari buruzko datuen egiazkotasuna egiaztatzea.

6.- Kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari eskatzea komunikazio elektroniko bidez, zazpi egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita, jarraian adierazten diren jarduketak egin edo dokumentuak aurkez ditzan.

19.4 LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita zazpi egun balioduneko epean, kontratazio organoak lehen sailkatuari honako hau egiteko eskatuko zaio:

- Kontratua burutzeko behar diren baldintza guztiak eta pleguan jasotakoak betetzen direla ziurtatzeko agiri administratiboak aurkeztea, aurretik egiaztatu barik badaude.
Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan erabakiko da eskatutako baldintza guztiak betetzen diren ala ez.

- Behin betiko bermea eman dela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztea, horrela behar izatekotan.

- Berdinketa suertatuz gero, berdinketa hausteari buruzko dokumentazioa aurkeztu behar du.

- Lehen sailkatua aldi baterako enpresa- elkartea, elkartea formalizatu zeneko eskritura publikoa aurkeztu behar du. Elkartekide bakoitzak ziurtagiri positiboa ekarri behar du Ogasun arlokoa eta Gizarte Segurantzakoa. Era berean, Ekonomia Jardueren gaineko dokumentazioa aurkeztu behar du.

- Kontratua exekutatzeko agindu dituen eta kontratazio organoak eskatu dizkion baliabideak benetan dituela erakusten duen dokumentazioa, eta kaudimena betetzekoak.

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo hutsuneak antzemanez gero, interesdunari posta elektronikoz jakinaraziko zaio eta gehienez hiru egun emango zaizkio akatsa zuzentzeko.

Ezarritako epean errekerimenduan eskatutakoak bete ezean, lizitatzaileak eskaintzari uko egin diola ulertuko da eta, orduan, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori, beti ere, eskaintzak sailkatutako hurrenkeraren arabera.

Eskaintzarekin atzera egin duela ulertuz gero, zigor legez, lizitatzeko aurrekontuaren %3a eskatuko zaio, BEZa kenduta. Zigor hau, lehenengo eta behin, behin behineko bermearekin ordainduko da, hau ordaindu balu, beti ere, kontratatzeko debekutzat jo daitekeelarik, errekerimendua ez betetzeagatik, doloz, erruz edo arduragabekeriaz egin izan balu.

Kasu honetan, dokumentazio hori bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio-organoak bost egun balioduneko epean esleitu behar du kontratua, dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

20. KLAUSULA. Behin betiko bermea

Eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat jarri beharko du kontratatze organoaren aurrean. Bere kopurua lizitatzaileak eskainitako prezioaren %5 izango da, Balio Erantsiaren Zerga kenduta.

Bermea eratu dela egiaztatu beharko da hamar egun balioduneko epean, errekerimendua bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, behin betiko bermea 2017ko SPKLren 110 artikuluak aipatutakoei aurre egiteko izango da. Hauen artean dago 2017ko SPKLren 196 artikuluan aurreikusitako kontratuaren xede diren prestazioen gauzatze txarra dela eta hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzeko beharra.

Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako edozein eratan jarri

ahal izango da.

Kontratistari exijitu ahal zaizkion penalizazio edo kalte-ordainak bermearen kontura gauzatzen direnean, honek berriz jarri edo zabaldu egin beharko du bera, dagokion kopuruan, exekutatu eta 15 eguneko epean. Bestela, suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketa bat dela eta bere prezioa ere aldatzen bada, bermea ere doituko da 15 eguneko epean, enpresari aldaketa ebazpena jakinarazten zaion egunetik hasita, era honetan aldaketaren ondorio den kontratuaren prezioarekin dagokion proportzioa gordetzeko. Hala ez bada egiten, suntsiarazpen arrazoi izan daiteke.

Honi dagokionez, ez dira prezioaren aldaketa bezala hartuko kontratuaren prezioen berrikuspenaren onarpenaren ondorio diren prezio aldaketak.

21. KLAUSULA. Behin betiko bermearen itzultze eta indargabetzea

Behin betiko bermearen itzulketa eta ezereztea 2017ko SPKLren 111 artikuluan ezarritako eran egingo da, baldin eta kontratuaren berme-aldia amaitu bada eta kontratuari dagozkion betebeharrak behar bezala gauzatu badira.

22. KLAUSULA. Kontratua ez esleitu edo burutzeko erabakia eta esleipen prozedurari uko egitea Administrazioaren aldetik

2017ko SPKLren 152 artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratazio organoak erabaki ahal izango du, bere formalizazioaren aurretik, kontratua ez esleitzea edo ez gauzatzea.

Kontratua ez esleitzeko edo ez gauzatzeko erabakia bakarrik hartu ahal izango da espedientean behar den bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik.

Prozedurari uko edo atzera egitea, kontratua prestatzeko edo esleipen prozedurako arau-hauste ez zuzengarri batean oinarrituta egon beharko da, eta bera ematen dela justifikatu beharko da espedientean.

23. KLAUSULA. Esleipena

Kontratatze organoak eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri esleituko dio

kontratua, 2017ko SPKLren 145 artikuluan xedatutakoa jarraituz.

2017ko SPKLren 157.4 artikuluaren arabera, behin betiko bermea aurkeztu ondoren, eta beharrezkoa den kasuetan, kontu-hartzaileak gastuaren loturaren fiskalizazioa egin ondoren, esleipendun bezala proposatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua eta esleipenaren ondoren, formalizatu.

Esleipen-ebazpena arrazoitu egin beharko da eta lizitatzaileei jakinarazi, horretarako 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratuz.

Aipatutako jakinarazpen eta publizitateak prozeduran interesatuak direnei esleipen-ebazpenaren aurkako helegite arrazoitua jarri ahal izateko beharrezkoa zaien informazioa izan beharko du. Beti ere ondokoa ekarriko du:

a) Esleipen prozeduratik kanpo utzi diren lizitatzaileei dagokionez, beraien eskaintza ez onartzearen arrazoiak, baliokidetasun ezaren erabakiaren arrazoiak edota obrak errendimendu edota eskakizun funtzionalei doitzen ez direnaren erabakia; eta lizitatzaile ezberdinei, esleipenduna barne, emandako balorazioen banakapen bat.

b) Edonola ere, adjudikaziodunaren izena, eta adjudikaziodunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, baldin eta erabakigarriak badira adjudikaziodunaren eskaintza hautatua izateko gainerako lizitatzaileen aldean.

Jakinarazpena baliabide elektroniko bidez egingo da 2017ko SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa jarraituz.

Inola ere ezingo da desertutzat eman lizitazio bat pleguaren araberako irizpideak jarraituz onargarri den eskaintza edo proposamen bat dagoen bitartean.

24. KLAUSULA. Kontratua burutu eta formalizatzea

Kontratua kontratatze-organoak egindako esleipenaren bidez perfekzionatuko da, eta esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasita 15 egun balioduneko epe barruan formalizatuko da administrazio-dokumentuan (153 2017ko SPKLren 153 artikulua).

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zorrotz lotuko den administrazio-dokumentuan formalizatu beharko da. Formalizatu ahal izango da ere eskritura publikoan hala eskatzen badu kontratistak, bere kontura izanik bera emateagatik sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa lizitatzaileei esleipena jakinarazten den hurrengo 15 egun baliodunen barruan egingo da 2017ko SPKLren 151 artikuluan aurreikusitako eran.

Esandako epean ez bada kontratua formalizatzen esleipendunaren errua diren arrazoiengatik lizitazioaren oinarri den aurrekontuaren %3ko kopurua eskatuko zaio, BEZ gabe, penalizazio gisa. Kopuru hau, lehendabizi behin betiko bermearen kontura egingo da, hau jarri bada, 2017ko SPKLren 71 artikuluaren 2. ataleko b) letran ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratuaren formalizazioa argitaratu egin behar da, kontratuarekin batera, perfekzionatu eta 15 egun baino lehen, kontratatze-organoaren kontratatzailearen profilean (2017ko SPKLren 154.1 artikulua).

Formalizazio-iragarkiak 2017ko SPKLren III. Eranskinean jasotako informazioa edukiko du.

III.- KONTRATUA GAUZATZEA

25. KLAUSULA. Kontratua gauzatzeko araubide orokorra.

Ondasunak udalak finkatutako tokian entregatu beharko dira, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua exekutatzeko arriskua eta mentura, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak administrazioari entregatu aurretik izandako galera, matxura edo galerengatik, salbu eta administrazioan berandutzea gertatu bada.

Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du kontratua. Administrazioak idatziz zein ahoz gauzatuko ditu ahalmen horiek.

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu hau gauzatzeko baldintza-agiri honen 8. klausulan zehaztutako ingurumen-, gizarte- eta hizkuntza-izaerako egikaritze-baldintza bereziak eskatuko dira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, lege horren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

26. KLAUSULA. Administrazioaren eskuduntzak

2017ko SPKLren 190 eta 191 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, kontratatze organoak ondoko eskuduntzak ditu:
a) Kontratua interpretatzea.
b) Kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea
c) Herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea
d) Kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea

27. KLAUSULA. Zuzendaritza fakultatiboa eta kontratuaren jarraipen eta burutzearen ardura duen unitatea.

Obren zuzendaritza fakultatiboari (udal arkitekto aholkulariari) dagokio bere exekuzioa gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioaren gauzatze zuzena ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta aginduak ematea.

Zuzendaritza fakultatiboak agindu ahal izango ditu, premiaz, arrisku arrazoiengatik beharrezkoak diren lanak egitea.

Kontratistak lan horiek bete egin beharko ditu, beti ere, ondoren zuzendaritzak dagokion administrazio-izapideak betetzearen kalterik gabe.

2017ko SPKLren 62 artikuluaren arabera, kontratu honen jarraipena eta gauzatze arruntaren ardura duen unitatea hau da: udal arkitekto aholkulariari edo alkateak izendatzen duena.

28. KLAUSULA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak

28.1 Kontratistari ordaintzea.

10. klausulan ezarritakoaren arabera.
Kontratistak 30 eguneko epean aurkeztu behar du faktura, prestazioa ematen den egunetik zenbatzen hasita.
Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazioak 30 eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, entregatutako ondasunak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita.
Administrazioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak ordaindu beharko dizkio kontratistari, 30 eguneko epe hori betetzen denetik aurrera

28.2 Laneko, gizarteko eta gardentasuneko betebeharrak

Kontratistak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak, bai eta aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere, hori guztia kontratu honen xede diren horniduretan lan egiten duten langileei dagokienez.
Era berean, esleipendunak gardentasunaren eta gobernu onaren betebeharrak betetzeko behar den informazio guztia eman beharko dio Administrazioari, aldez aurretik eskatuz gero.
Administrazioa erantzukizunetik salbuetsita geratuko da ez-betetze horrengatik.

28.3 Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen funtsezko betebeharrak

a. Aurkeztutako proposamena betetzea.
b. Indarrean dagoen araudian aurreikusitako segurtasun eta osasun neurriak betetzea.
c. Langileei soldatak ordaintzea eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzea.
d. Lan-istripuei eta laneko segurtasun arauei buruzko guztia.
e. Kontratuaren xede diren instalazio-lanen aurretik azterketa luminikoa egitea.
f. Kontratuaren xede den instalazioa egin ondoren, enpresa esleipendunak

argien uniformetasuna bermatu dela egiaztatuko du, bai eta indarrean dagoen araudiak behe-tentsioko instalazioetan eskatzen dituen gainerako ziurtagiriak ere.

g. Esleipendunak modu frogagarrian egiaztatu beharko du kendutako elementuak baimendutako birziklatze-instalazio batera bidali direla
h. Esleipendunak erantzukizun zibileko poliza bat sinatuko du hirugarrenei egin dakizkiekeen kalteei aurre egiteko, 300.000 euroko gutxieneko estaldurarekin.
i. Administrazioko teknikariek ahalmena izango dute uneoro enpresa esleipendunak egin beharreko lanak ikuskatzeko.

28.4 Berme epea.

Hornitutako eta instalatutako materialerako berme bat ezartzen da, 3 urtekoa, fabrikazio eta/edo funtzionamendu-akatsen aurka (Led teknologiarako indarrean dagoen araudia ez betetzearen eragileak barne), edo esleipendunak eskainitako eperik handiena, lana jasotzen edo onartzen den egunetik zenbatzen hasita. Horren barruan sartzen dira luminaria, Led modulua, Driver eta gainontzeko osagai guztiak.

Berme-epea igaro eta ez bada eragozpenik jarri lanetarako, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

Berme-epean egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak edo hutsuneak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko .

29. KLAUSULA. Kontratuaren aldaketa

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, lege beraren 203., 206. eta 207. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, betiere horrekin lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Prezioa unitateko prezioen bidez zehazten den hornidura-kontratuan, hornitu beharreko unitateen kopurua handitu ahal izango da 205.2.c) .3 artikuluan aipatzen den kontratuaren prezioaren ehuneko 10eraino, eta ez da beharrezkoa izango dagokion

aldaketa-espedientea izapidetzea, betiere administrazio-klausula zehatzen agirian hala ezarrita badago eta kontratuaren jatorrizko espedientean dagokion finantzaketa egiaztatu bada.

30. KLAUSULA. Kontratua etetea

Udalak, interes publikoko arrazoiak direla eta, erabaki ahal izango du kontratuaren gauzatzea etetea.

Kontratua etengo da ere 2017ko SPKLren 208 artikuluko gertakizuna ematen bada. Kontratuaren etetearen eraginak 2017ko SPKLren 208 artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta baita berarekin bat datozen HAKLEOren xedapenetan araututakoarekin.

31. KLAUSULA. Kontratua suntsiaraztea.

Hornidura-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoak dira.

Kontratua suntsiarazten bada, ondasunak eta egindako ordainketen zenbatekoa elkarri itzuliko zaizkio, eta Administrazioak ezin badu edo ez bazaio komeni, benetan entregatu eta adostasunez jasotakoen prezioa ordaindu beharko du.

32. KLAUSULA. Izaera pertsonaleko datuen tratamendua eta konfidentzialtasuna

Aulestiko Udalak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, beharrezko neurriak hartuko ditu kontratuaren esleipendunari, interesdun gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluetan adierazitako informazio guztia emateko. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta zuzentaraua indargabetzen du. 95/46/EE (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) – RGPD-, bai eta aipatutako arauaren 15.etik 22.era bitarteko artikuluen eta 34. artikuluaren araberako edozein komunikazio ere, tratamendu zehatz, garden, ulergarri eta eskuragarriari buruzkoa, hizkera argi eta errazarekin, bereziki haur bati berariaz zuzendutako edozein informazio. Informazioa idatziz edo beste bitarteko batzuen bidez emango da, baita, hala badagokio, bitarteko

elektronikoen bidez ere.

Egintza honen bidez, esleipendunari jakinarazten zaio udal honek bere datuak erabiliko dituela lizitatzaileen datuak kudeatu ahal izateko, bai eta esleipendunak lizitazio honen esparruan kudeatu ahal izateko eta kontratu hori gauzatzeko ere. Datu horiek agintari eskudunei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta administrazio publikoari aplikatu beharreko artxibo-irizpideen arabera gordeko dira.

Nolanahi ere, emandako baimena errebokatzea adieraz dezake, bai eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak baliatzea, tratamendua mugatzea edo datuen aurka egitea, eta datuak transferitzeko eskubidea ere. Eskaera horiek Donibane enparantza 1 – 48380 AULESTI helbidean egin beharko dira.

1. Jakinarazten da, halaber, nahi izanez gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkez dezakeela, edo Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremanetan jar daitekeela, idazkaria@aulesti.eus helbidean.

Zerbitzuak emateko udalaren ardurapeko datuak tratatu edo eskuratu behar badira, arduradunaren figura arautzen duen akordioa sinatu beharko da, eta, bertan, esleipendunak bere zerbitzarien kokapenari buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin beharko du, udalaren ardurapeko datuak eskuratu ahal izateko.

33. KLAUSULA. Hornidura jasotzea eta berme-epea

Hornidura entregatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean, harrera egiteko egintza formala eta positiboa egingo da.

Hornidura jasotzeko moduan ez badago, berariaz idatziko da, eta jarraibideak emango zaizkio kontratistari, akatsak zuzen ditzan edo beste hornidura bat egin dezan itundutakoaren arabera. Zuzenketa edo ordezkapena egiten ez denean, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du hornidura, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuko du.

Era berean, hiru urteko epea ezartzen da, edo esleipendunak eskainitako eperik handiena, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori berme gisa ezartzen da SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu

Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Administrazioak, berme-epeak irauten duen bitartean, eskubidea izango du hornitutako ondasunak lehengoratzeko edo konpontzeko, baldin eta akatsen bat badute.

Administrazioak, berme-epean, egiaztatzen badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo akatsen ondorioz, lortu nahi den helbururako, eta uste badu ondasun horiek ez direla nahikoa helburu hori lortzeko, epe horren barruan, atzera bota ahal izango ditu, eta kontratistaren kontura utzi.

34. KLAUSULA. Penalizazio-araubidea (SPKLren 192-194 artikuluak)

34.1 Kontratua burutzeko epeak ez betetzea

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua suntsiarazteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

34.2. Prestazioen burutzapen partziala ez betetzea

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

34.3. Kontratua burutzean akatsak egitea

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

34.4. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea

8. klausulan ezartzen diren baldintzak betetzen ez badira, udalak kontratuaren aurrekontuaren %10eko penalizazio bat ezarri ahal izango du.

34.5. Kaudimen konpromisoak ez betetzea

Kontratistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

35. KLAUSULA. Kontratuaren lagapena

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, baldin eta:

A) Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak,
B) Lagapenak ez badu merkatuko lehia benetan murrizten,
C) Lagapenak ez dakarkie funtsezko aldaketarik kontratistaren ezaugarriei, kontratuaren funtsezko elementua badira, eta
D) Lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako betekizun eta eskakizunen arabera egiten denean.

36. KLAUSULA. Kontratuaren azpikontratazioa

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioaren zati bat. Nolanahi ere, azpikontratazio horrek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. Artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

37. KLAUSULA. Errekurtsoak eta jurisdikzioa

Obra kontratu honen esleipenerako prozedura ireki sinplifikatuan ematen diren ekintzak errekurritu ahal izango dira Herri Administrazioen Administrazio-Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa jarraituz, eta kontratatze-organoak ebatziko du; baita ere administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea jarraituz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

Esleipendunak berariaz uko egiten dio bere jurisdikzio-foruari, eta, auzirik egonez gero, Bizkaiko epaitegi eta auzitegien mende jarriko da.

Aulesti 2023ko maiatzaren 24an.

I ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Jaun/Andrea:		NAN:	
Helbidea:			
Telefonoa:	Email:		

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du, bere izenean (edo_____ordezkari gisa)
Helbidea: _____PK _____
IFK/NAN _____, telefonoa _____, helbide elektronikoa _____

Aulestiko Udalak "Aulestiko kanpoko argiteri publikoaren aldaketa efizientzia energetikoa hobetzeko 1. fasea" kontratatzeko deitu duen prozedura irekiaren berri izanda, honako hau adierazten dut:

1º) Nire proposamenean ezarritako epean gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala, prezio honetan:

PREZIOA (BEZ barik)	
BEZ (% 21)	
GUZTIRA	

Gastu guzti-guztiak bertan daudelarik, materiala, esku-lana, garraioa, desplazamenduak, hondakinen kudeaketa eta segurtasuna eta osasunari dagozkionak barne.

2º) Ezagutzen ditudala kontratu honen Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta gainerako agiriak, eta oso-osorik onartzen ditudala.

3º) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta bete-behar guztiak betetzen dituela.

(lekua, data eta sinadura)